Esta es una parte en la que el movimiento feminista debería ser capaz de articular propuestas concretas de actuación, no digo que no lo estemos haciendo sino que pese a la gran concienciación social obtenida no hemos conseguido que esto sirviera para un posicionamiento social e individual de rechazo a la violencia. Un ejemplo de ello, es la encuesta que realizó el C.I.S. en noviembre del año pasado donde señalaba que solo el 2,7% de la población española consideraba la violencia machista como un problema grave. Nos toca, pues, repensar cómo podemos seguir articulando redes sociales.

### 5.2. Cómo se deben incorporar los hombres a esta lucha

Está claro que aunque está habiendo planteamientos de rebeldía por parte de algunos hombres, su inclusión en la lucha contra la violencia sigue siendo muy escasa. Es necesario tenerlos como aliados, sí, pero a veces tengo la impresión de que nos da miedo exigirles posturas más contundentes y esperamos que tengan “buena voluntad” o que sean “majos”, para que actúen de manera no sexista. Creo que si a las mujeres nos/les lanzamos

mensajes de empoderamiento y de sujetos agentes, partiendo nosotras de una construcción identitaria de desigualdad, no podemos menos que exigir a quien parte de condiciones de mayor poder, reconocimiento y autoridad, que se implique. Debemos pensar cómo pasar del “yo no soy machista, por tanto no tengo responsabilidades”, a la empatía y de ahí al compromiso solidario.

## 6. El tratamiento en los medios de comunicación

El cómo se recogen las noticias sobre violencia, pese a haber mejorado en los últimos años, sigue estando muy condicionado por los prejuicios sexistas y la mitología de la violencia. A pesar de las iniciativas de las propias periodistas para crear decálogos, éstos o no se tienen en cuenta o no son leídos por quien da la noticia. Debemos exigir un cambio en el tratamiento de la violencia que no saque a vecinas-os como expertas ni que haga hincapié en los elementos secundarios o en la vida de las mujeres, para justificar o legitimar la violencia.

## 7. Las responsabilidades de las instituciones

Sin lugar a dudas, creo que debemos exigir a las instituciones que cumplan con su deber de construir un mundo donde no exista la violencia contra las mujeres porque eso, también, forma parte de sus responsabilidades. Para ello, debemos exigir que no solo trabajen contra el maltrato en el ámbito doméstico, (parece que ésta es la única forma de violencia que existe) sino contra todas las expresiones de la violencia. Trabajar no solo puntualmente en el 25 de noviembre sino trabajar la prevención de la violencia en todas sus expresiones y ámbitos. Además de generar las condiciones para que la igualdad de oportunidades sea un hecho.

Maitena Monroy



# Indarkeriarik gabeko 500 ekintza. Historia kontatzeko beste modu bat

Historia(k) hainbat modutan kontatu ohi d(ir)a. Nork bere erara interpreta dezake. Egunero gertatzen zaigu ikasgeletan guk bizi izan ditugunen ezberdin diren (h)istorioak irakurtzen baititugu. Zeinek idatzi ote du? datorkigu burura... Iruzur eta erdizkako egien inguruak baino haratago, argitaratu ere egiten ez den eta, ondorioz, irakasten/erakusten ez duten horixe dugu. Eta kontatua ez dena ahanzi egiten da.

Hil ondoreneko lehen urtemuga den honetan, Mikel Laboa oroimenean dugula aitzakiatzat hartuko dugu abeslari donostiarrek edozein Historia ikaslek entzun (eta interpreta) beharko lukeen Bertold Brechten poema handi bat musikatu zuela gogoratu nahi baitugu. Lehen pasarteetan hala dio: “Zazpi Atedun Tebas hura, nork eraiki zuen? Liburuetan Errege izenik baizik ez da ageri. Erregeek garraiatu ote zituzten harriztar haundiok?” Garaileek idatzi ohi dute historia: euren ohorea, euren gerrak, euren bizi eredia, euren helburua, euren ondarea, euren ondorengoak... Beste guztia albo batera uzten da, ez du merezi kontatu, irakurri, bere gainean hausnartu edo hedatzerik.

Bazterturiko kontakizunok ez badira biltzen, ez badira gauzak beste angulu batetik ikusten, etorkizuneko belaunaldiek ez dute bertsio ofizial bakarra besterik jasoko. Josemi Lorenzo Arribasen esanetan “lejos de esa concepción fosilizada que nos hace pensar en ‘historia’ como una suma de cosas inertes, ya muertas, la capacidad del relato de la memoria consiste en actualizar su vigencia a base de enlazar con la experiencia que generaciones de gente como nosotras y nosotros han ido atesorando, defendiendo y ofreciendo”.

Hauxe da Bidea Helburuk kaleraturiko liburuak, “Historia kontatzeko beste modu bat. Indarkeriarik gabeko 500 ekintza”, egin nahi zuen ekarpena. Erresistentzia, indarkeria-eza ekintza, oroimena galdu ezin dugun kontzeptua dela... hizpide dituen kontaketa da. Bertan, mendeetan zehar garatu diren hainbat indarkeriarik gabeko disidentzia zibil adibide berreskuratu dira oroimen aberats eta anitz baten osaketan laguntzeko asmoz; 500 ekintza praktiko, ekintza berriak osatzeko 500 ideia izan daitezkeen itzaropenean. Hauetatik gehienak Euskal Herrian burutuak dira.

Aipatu transmisio katean ezinbestekoa da memoria hori berreskuratzea, historia boteretsuen esku hutsetan geratuko ez bada eta belaunaldi berriek giza errealitate berriak ezagutzeko aukera izango badute. Liburuak indarkeria eza kontzeptu eta borroka moldeen sorrera adibideak bildu ditu, protagonisten izenekin: Petr Chelciky, zeinak XV. menderako erabilia zuen indarkeria eza terminoa; Étienne de la Boétie, XVI.aren erdirako tiraniaren aurkako kolaborazio ezari buruzko saiakeria aitzindaria egin zuena; Henry David Thoreau, zeinak desobedientzia zibilar buruzko lehen agiria idatzi zuen 1846an; Mohandas K. Gandhi, XX. mendean desobedientzia zibila praktikan jarri zuen Afrikan eta Indian; León Tolstói, erresistentzia-eza kontzeptuaren teorizatzailea, 1910ean; Bertrand Russell, garai berean Lehen Mundu Gerraren aurkako indarkeria eza abian jarri zuena; Martin Luther King, zeinak bere komunitatearekin indarkeriarik gabeko ekintza zuzenak burutu zituen 60ko hamarkadan; Pepe Beunza, 1971an Espainiako lehen kontzientzia eragozlea... Jean

Marie Mullerren 70ko hamarkadan indarkeria-eza aktiboaren teorizazio modernora iritsi arte.

Hauekin batera egungo indarkeria-eza aktiboaren kontzeptua ulertzeko lagungarri diren hainbat elementu sartu dira: genero berdintasunaren aldeko borroka, XVIII. mendeko bukaerako Olympe de Gouges eta emakume hiritarren elkarteak zein Emakumea eta Hiritarraren Eskubideen Agiria; “boikot” hitzaren jaiotza 1880an; bakearen lehen banderaren agertzea, Aldo Capitini 1961ean altxatua edo Gerald Holtomek bi urte lehenago diseinaturiko “Egin amodioa, ez gerra”rena; Greenpeace, Amnesty International, Chipko eta Vandana Shiva mugimenduen sorrera, Madres de la Plaza de Mayo, Lanza del Vasto, Larzac, Dolores Huerta eta César Chávez, Mujeres de Negro...

Aipatu zipriztin hauek liburuaren eduki nagusian txertatzen dira; alegia, indarkeriarik gabeko ehunka akzioak eta euskal talde aktibistek egindako hainbat ekintzak osatzen dute liburuaren mardula. Batzuen batzuk aipatzearen: euskal lurretan egindako lehen greba (meategietan, 1890), lehen gose greba (1931), frankismoan sorturiko lehen ikastola (1943), frankismo garaian egindako greba luze eta ezagunena (Bandas de Etxebarri, 1968), lehen okupazioak (gaztetxeen aitzindari, 1977), soldaduskaren aurkako lehen manifestaldiak (1977), lehen bizikleta martxa (1977), lehen ibai jaitsiera aldarrikatzailea (1981), lehen eragozpen fiskal ekimena (1985), euskal intsumiso bati eginiko lehen gerra kontseilua (Tenerife, 1991), Euskadin intsumiso bati eginiko lehen epaiketa (1992), lehen aldiz alkate intsumiso bati eginiko epaiketa (1993)...

Bistan denez, historia berrirakurtzeko modu berria da. Gertuenekoa, bizipen kolektiboaren zati da “hara, ni honakoan izan nintzen”. Gauza bera bukaeran azaltzen diren gehigarriekin, non euskal udalen agiriak azaltzen diren jarduera militarren, Armadaren, zerbitzu militarren eta intsumisioaren inguruan, baita alkate eta zinegotzien atxiloketen berri eman ere: “Hara, nire herria ez da azaltzen”...

Esan gabe doa, historia bukatzeke dagoela (bai letra larritan zein xehetan) eta hori liburuan ber-

tan ohartzen da. Akuilua da, beraz, biltze eta komunikatze lanari ekin eta eusteko. Baina honekin batera, Bidea Helburuk ez du ekintzen zerrenda hutsa egin nahi izan. Pausoa harago eman eta eraldakuntza sozialaren aldeko ekintza politikoa behin eta berriro birpentsatu beharra adierazi nahi izan du. Tesi bat botatzeko ausardia ere izan dute: ekonomia, politika eta gizarte aldaketak aurrera eramateko filosofia eta tresna egokia da indarkeria eza aktiboa, baina beharrezkoa da ekintzarik gabeko ekintzetatik indarkeria-eza (hitz bakar batean bilduak) aktiboko estrategietara jauzi egitea “diren aniztasun eta gatazka ugariak humanizatu eta koherentziaz atontzeko eraginkorrago eta beharrezkotzat ditugu eta”.

Liburuaren hitzaurreetako batean, Gabriela Serra eta David Fernandezek Howard Zinn aipatzen dute, koherentziaz jantzitako ekintza txiki, keinu eta praktika askoren metaketa eta biderketaetik etorriko dela egun dugun sistemaren aldaketa. Hau guztia ari da dagoeneko indarkeria-eza estrategien oinarria sortzen.

Baina, era berean, jakitun gara ez dela batere erraza koherente izatea planteamendu honekin. Gero eta zailtasun eta traba handiagoak daude hainbat botereen eskutik. Honen harira, Donostian buruturiko Indarkeria-eza Aktiboko VIII. Jardunaldietan bi mahai-ingurutan gai hauxe izan zuten eztabaidagai. Lehena oztopo horiek agerian jartzen zituen argazkia ateratzen saiatu zen; bigarrenak, aldiz, hauek gaingintzeko bideak aztertu zituen. Halaber, aurreko egunean egindako mahai-inguru batek “Zertan aldatu behar dute Poliziak, gizarte eragileek eta gizarteak berak gatazkak eta ekintza politikoa indarkeria-ezatik garatu ahal izateko?” galdera zuen ardatz. Horretan darraigu.

Informazio gehiago dago eskuragarri [www.bideahelburu.org](http://www.bideahelburu.org) webgunean. Liburuaren lehen edizioa euskaraz egin zen eta “Berria” egunkariaren bitartez banatu zen. Ondoren, Manu Robles-Arangiz Institutuak kaleraturiko edizio elebiduna liburutegietan eskura daiteke.

Sabino Ormazabal



## Las redes wifi y sus riesgos

El desarrollo de dispositivos informáticos y no-informáticos conectados ha supuesto el crecimiento de la instalación de tecnologías basadas en las radiofrecuencias y microondas que permiten la conexión inalámbrica entre distintos ordenadores y/o portátiles. La tecnología wifi (Wireless Fidelity), ofrece la posibilidad de conexiones rápidas a través de señales de radio sin cables o enchufes. Las tecnologías Bluetooth, wifi, PDAs, WiMAX (wifi de banda ancha) tienen el denominador común de referirse a tecnologías que permiten la comunicación de voz y datos sin utilizar cables.

Estas tecnologías *wireless* están reemplazando a los cables de conexión. Las redes inalámbricas tipo *Bluetooth*, con un alcance de 100 metros o los sistemas wifi, de un alcance superior, donde po-

demos estar permanentemente conectados. Todos estos sistemas emiten campos electromagnéticos de microondas pulsantes similares a la telefonía móvil.

En el estado español, se adapta la normativa internacional concretada en la banda de 5 gigahercios de frecuencia para sistemas de acceso inalámbricos (WiFi) a la red fija a alta velocidad. Designa la banda de 14 gigahercios para hacer posible el acceso a Internet desde aviones (American Airlines y Delta Air Lines ya tienen previsto incorporarlo) y reserva la banda 2500 a 2690 megahercios para futuras ampliaciones de los sistemas de telefonía móvil de tercera generación UMTS.

En 2009, la red pública inalámbrica de WiFi tenía 4.851 puntos de conexión en todo el estado es-



pañol, lo que supone 12,8 millones de personas. La Comunidad de Madrid, es el territorio con un mayor número de puntos WiFi: 1.776, le siguen Cataluña, con 1.391, Andalucía con 885 y la Comunidad Valenciana con 622 puntos. El País Vasco tiene 430, Galicia 416, Castilla y León 302, Baleares 183, Aragón 177, Cantabria 164, Murcia 160, Navarra 153, Canarias 151, Asturias 148, Castilla La Mancha 144, Extremadura 137 y La Rioja 126.(1)

### Los sistemas Wifi y los impactos ambientales y sanitario

Wifi es la abreviatura de *Wireless Fidelity*, un conjunto de normas para redes inalámbricas (redes en la cual la comunicación entre sus componentes se realiza mediante ondas electromagnéticas); siguiendo las especificaciones técnicas que se ajustan al protocolo IEEE 802.11 o WI-FI; que es un estándar de protocolo de comunicaciones del Institute of Electrical and Electronics Engineers IEEE (Instituto de Ingenieros Eléctricos y Electrónicos). El IEEE es una asociación profesional mundial que, entre otras cosas, establece protocolos y normas de funcionamiento de los sistemas de comunicación inalámbricos. Wi-Fi se creó para ser utilizada en redes locales inalámbricas de ordenadores LAN (Local Area Network), para usarlo en el acceso a internet.

Los routers Wifi emiten en torno a 100mW, pero suponen un riesgo para la población escolar por su cercanía a niños y niñas en especial a la cabeza, en edad pediátrica, cuando se está desarrollando su cerebro y su sistema nervioso. Los sistemas wifi emiten cuando hay transferencia de datos. Esta tecnología tiene una menor velocidad en comparación a una conexión por cable, debido a las interferencias y pérdidas de señal en el ambiente. Se consigue una mejor conexión y una mayor velocidad con conexión por cable. Habría que usar el wifi como último recurso, cuando no se pueda establecer conexión por cable, y sólo si es absolutamente necesario. No se debería instalar en los dormitorios de niños/as o cerca de los mismos. El sistema wifi emite con menos potencia, sin embargo, en muchas empresas y colegios el foco de emisión está muy cerca del cerebro del niño

y la niña, adolescente o persona adulta en una exposición horaria continua y amplia en ámbitos laborales o en centros de enseñanza durante el horario escolar.

El problema fundamental son los niveles de emisión/inmisión de microondas pulsátiles a los que estamos expuestos. Las emisiones de los sistemas Wifi se sumarán a las emisiones de los sistemas de telefonía móvil y afectarán especialmente, a los grupos de edad sensibles como personas mayores o niños y niñas cuando se instalan estos sistemas, por ejemplo, en centros de enseñanza. Uno de los riesgos emergentes en el ámbito laboral europeo, son los campos electromagnéticos, riesgos físicos identificados como más peligrosos en un informe del Observatorio Europeo de Riesgos de la Agencia Europea para la Seguridad y la Salud en el Trabajo (2).

La polémica mediática sobre el uso de los sistemas Wifi comenzó en Gran Bretaña después de que una investigación hecha por el programa *Panorama*, de la cadena estatal BBC, denunciara los peligros que esta tecnología puede acarrear para los seres humanos. Este programa centró sus tesis en que las emisiones de estas ondas radioeléctricas eran tres veces más potentes que las emitidas por un aparato de telefonía móvil, por lo que sus posibles efectos adversos afectarían en la misma proporción. La Agencia de Protección Sanitaria británica quiere acabar con el debate entre científicos y expertos y realizar un estudio sistemático sobre si las emisiones de los sistemas Wifi pueden afectar a la salud pública; dado que en el Reino Unido la mayoría de los centros educativos tienen sus redes informáticas conectadas por Wifi; con la lógica preocupación entre enseñantes, padres y madres del alumnado.

La Comisión Internacional para la Seguridad Electromagnética (ICEMS) de investigadores independientes, que trabajan en el ámbito de campos electromagnéticos y salud; en su conferencia internacional: *Aproximación al Principio de Precaución y los Campos Electromagnéticos: Racionalidad, legislación y puesta en práctica*, en la ciudad de Benevento, Italia, ( 22-24 de febrero de 2006)

llegó a una serie de conclusiones, a través de la **Resolución de Benevento, en la que propone: Promover las alternativas a los sistemas de comunicación sin hilos, por ejemplo: uso de la fibra óptica y de los cables coaxiales** (3). El ICEMS propone que los sistemas inalámbricos urbanos deben estar sometidos a una revisión pública de la exposición potencial a campos electromagnéticos (CEM) y, en el caso de estar instalados anteriormente, los municipios deben asegurar una información disponible para todos y actualizada regularmente.

La universidad de **Lakehead, en Ontario, Canadá**, ha limitado las conexiones Wi-Fi a aquellos lugares donde no se pueda acceder a internet mediante fibra óptica. Fred Gilbert, presidente de la Universidad, se muestra cauteloso con el empleo de dichas redes: “No se conoce el impacto que puede tener sobre las personas el uso de las ondas electromagnéticas”. Basa esta medida en estudios aparecidos recientemente que relacionan casos de cáncer ocurridos en animales, y personas, con estos campos electromagnéticos (4)

El 20 de julio de 2007, el **Ministerio Federal Alemán de Medio Ambiente, señalaba que como medida de precaución son preferibles los sistemas de transmisión de datos por cable como alternativas a los sistemas Wifi**. Se recomendaba a escuelas y centros de enseñanza que, si era posible, se evitase los sistemas Wifi.

En septiembre de 2007 se presentaba el denominado **Bioinitiative Report**; realizado por un grupo internacional de científicos, investigadores y profesionales de la salud pública (5). La **Agencia Europea de Medio Ambiente (EEA)** ha contribuido en este nuevo informe con un capítulo extractado de un estudio de la propia EEA, “Últimas lecciones de las primeras alertas: el principio de precaución 1896-2000”, publicado en 2001. **El informe expone una detallada información científica sobre los impactos en la salud cuando se está expuesto a la radiación electromagnética cientos y miles de veces por debajo de los límites establecidos**. Los autores/as han revisado más de 200 estudios científicos y trabajos de investigación, y han concluido que los niveles existentes de seguridad pública son inadecuados

para la protección de la salud. Desde el punto de vista de las políticas de salud pública, unos nuevos límites de seguridad están justificados basados en el peso total de la evidencia científica.

- Los investigadores señalan que las evidencias sugieren que los efectos biológicos e impactos en la salud pueden ocurrir y de hecho ocurren a niveles mínimos de exposición, niveles que pueden estar miles de veces por debajo de los límites públicos de seguridad actuales. Los campos electromagnéticos de radiofrecuencia o microondas pueden considerarse genotóxicos (que dañan el ADN de las células) bajo ciertas condiciones de exposición, incluyendo los niveles de exposición que están por debajo de los límites de seguridad existentes.
- Advierten además de que niveles muy bajos de exposiciones pueden llevar a las células a producir proteínas de estrés, reconocen las exposiciones a estas emisiones como dañinas y que hay una evidencia substancial de que estas emisiones pueden causar reacciones inflamatorias, reacciones alérgicas y cambiar las funciones inmunes normales a niveles permitidos por los actuales valores límite de seguridad.
- También en septiembre de ese año la **Agencia Europea de Medio Ambiente (EEA)** señala que es necesario **cuestionar los límites de exposición actuales a los CEM, incluidos los emitidos por los sistemas Wifi**, de acuerdo con el Grupo de Trabajo BioInitiative (6).
- En noviembre de 2007, El **Comité de Higiene y Seguridad (CHS) de la Dirección de Asuntos Culturales de la ciudad de París** votó la propuesta que reclamaba una **moratoria para la implantación del Wifi en bibliotecas y museos** hasta haber constatado los efectos sanitarios del Wifi”. Las asociaciones alegan los efectos genotóxicos de las frecuencias del Wifi. En diciembre del 2007, la Alcaldía de París desactivaba, invocando el principio de precaución (7), las instalaciones Wifi de seis bibliotecas públicas de la ciudad, debido a que los trabajadores se quejaban de problemas de salud.

La denominada **Resolución de Londres** (2007), firmada por investigadores sobre campos electromagnéticos de prestigio internacional, como O. Johansson, L. Hardell o G. Oberfeld, entre otros, manifiesta en sus propuestas su oposición a la instalación de *“los sistemas Wi-fi, WiMax u otras formas de conexión inalámbrica a la red en hogares, escuelas o áreas públicas o promover el uso de los mismos”* (8).

En el **estado federal de Salzburgo** (Austria), el gobierno regional ha estado **recomendando a las escuelas no instalar redes WiFi** durante los últimos meses, y está considerando una prohibición. En **Gran Bretaña**, Philip Parkin, Secretario General de Voice, antigua Asociación Profesional de Enseñantes, estima que una generación de niños/as son efectivamente *“cobayes en un experimento a gran escala”* (9).

Un reciente estudio “in vivo” del Dr. Dirk Adang, bajo la dirección del catedrático André Vander Vorst (Universidad Católica de Louvain-La-Neuve, Bélgica), cuyo objetivo han sido las afecciones de las radiaciones electromagnéticas sobre ratas de laboratorio expuestas a este tipo de emisiones, señala que las radiaciones de los teléfonos móviles, las antenas de telefonía y los aparatos Wi-Fi no sólo hacen perder memoria sino que deterioran el organismo. El Dr. Adang formó con los roedores cuatro grupos; a tres les expuso durante 18 meses a dos horas diarias de radiaciones -cada grupo con distintos niveles e intensidades- y el cuarto no recibió radiación. Las tasas de mortalidad en los tres grupos radiados fueron respectivamente del 48,4%, 58,1% y 61% mientras que en el grupo de control el número de roedores que murió fue de sólo un 29%. Paralelamente, Adang investigó el impacto sobre la memoria y la conclusión fue que una larga exposición -15 meses- causa *“evidentes pérdidas de memoria”*. El catedrático que ha dirigido la tesis, Vander Vorst, reconoció haberse quedado *“impresionado”* con el hecho descubierto y agregó que, aunque los resultados no pueden extrapolarse sin más a los humanos, todo indica que *“es necesario dictar normas más rigurosas mientras no se pruebe que estas radiaciones no son peligrosas para la salud. Las normas actuales de radiación máxima en la mayor parte de los países europeos*

*no son suficientemente estrictas, a excepción de Suiza y Luxemburgo”*. (10)

En enero de 2009, residentes de la ciudad de Glastonbury (Reino Unido) han afirmando que una red Wi-Fi es la responsable de una serie de problemas de salud que están sufriendo. También en Canterbury, el Consejo Parroquial ha dirigido una solicitud al ayuntamiento que desmantelen dos torres Wifi; por motivos de impacto visual, posibles efectos sobre la salud y el hecho de que el permiso no se haya pedido antes de su instalación. Bélgica, Italia y Austria ya han limitado severamente el límite máximo permisible para las emisiones de Wi-Fi y en Alemania el gobierno está asesorando para que el público en general vuelva a la banda ancha por cable.

En el **estado español**, el Ayuntamiento de Basauri (Bizkaia) ha anunciado que va a sustituir poco a poco las redes inalámbricas de acceso a Internet, existentes en las Casas de Cultura por otras de cable ADSL (11). También se han producido movilizaciones vecinales y ecologistas a favor de otras alternativas de acceso a Internet frente al sistema Wifi en Valladolid y en León, paralizando un juzgado, en este último caso, de forma cautelar, el despliegue de las antenas Wifi en el casco histórico (12).

En abril de 2009, **el Parlamento Europeo** ha aprobado una resolución que insta a la Comisión Europea a reconocer la preocupación pública y científica sobre los riesgos para la salud de los campos electromagnéticos y señala en su apartado B *“que la tecnología de los dispositivos inalámbricos (teléfono móvil, Wifi-Wimax-Bluetooth, teléfono de base fija «DECT») emite CEM que pueden producir efectos adversos para la salud humana”* (13).

Recientemente, el municipio francés de Hérouville-Saint-Clair (Calvados) apagará WiFi en las escuelas a finales de año. El alcalde Rudolph Thomas dijo, en una conferencia de prensa *“Aplicamos el principio de precaución. Nuestro papel es proteger la salud de las personas”*. (14).

## Conclusiones

Las antenas Wifi se pueden comprar por Internet y, por lo tanto, su radiación es más incierta que la de

las estaciones base de telefonía móvil. En la práctica, nadie regula dichas potencias ni el número de usuarios “on-line”, y cualquiera puede montar una estación base en su casa. Un panorama realmente caótico si consideramos sus riesgos.

Es necesario, por tanto, establecer una moratoria en su implantación, al menos en centros de enseñanza, bibliotecas públicas, universidades, edificios y espacios públicos y ambientes laborales y, además, proceder a su sustitución por sistemas ADSL de cableado coaxial o fibra óptica. Incluso desde el punto de vista técnico los sistemas de cableado tienen la ventaja de ofrecer una conexión más rápida y segura, por lo que son los preferidos de los bancos.

El desarrollo de un mayor control sobre los niveles de emisión/inmisión de las antenas y sistemas wifi es una labor concreta de las administraciones locales y regionales y de las inspecciones territoriales de telecomunicaciones que deben evitar la proliferación caótica como las que han supuesto los anteriores despliegues de las redes de telefonía móvil.

## Referencias

1. La Verdad. Murcia. 22 de abril de 2009.
2. Declaraciones de Eusebio Rial, director de la institución. Europa Press 1/03/2207. Pedro Belmonte Espejo: La tecnología wifi. El Ecologista, Nº 57, 2008, pp. 44-46. Foster K.R.: Radiofrequency exposure from wireless LANs utilizing Wi-Fi technology. Health Phys. 2007 Mar; 92 (3):280-9.
3. AA. VV: Benevento Resolution 2006. Electromagnetic Biology and Medicine, Volume 25, Issue 4 2006. pp. 197-200. Francesco Boella, Francesco Mozzo, Francesco Panin, Livio Giuliani: Perspectives in risk management in Italy: the impact of WiMax and Wifi (PP presentation) Foundations of bioelectromagnetics: towards a new rationale for risk assessment and management. 6th ICEMS Workshop, December 17, 2007, Venice, Italy. Salles, Alvaro A. de; Fernández Claudio R.: Exclusion Zones Close to Wireless Communication Transmitters Aiming to Reduce Human Health Risks. Electromagnetic Biology and Medicine, Volume 25, Issue 4, December 2006, pages 339-347. Institute of Science Society [ISIS]: Drowning in a Sea of Microwaves. The Wi-Fi revolution. ISIS Report 17/05/2007. www.i-sis.org.uk/DSOM.php
4. Lakehead University: wifi policy policies.lakeheadu.ca/policy.php?pid=178.
5. Carl Blackman, USA, Martin Blank, USA, Michael Kundi, Austria, Cindy Sage, USA, et alii: BioInitiative Report: A Rationale for a Biologically-based Public Exposure Standard for Electromagnetic Fields (ELF and RF). Release Date: August 31, 2007, 610 pp. www.bioinitiative.org.
6. www.eea.europa.eu/highlights/radiation-risk-from-everyday-devices-assessed. Published: 17 Sep 2007. The Independent. 16/09/2007(UK). The New Zealand Herald 16/09/1007(NZ).
7. www.news.fr/actualite/societe/0,3800002050,39376062,00.htm
8. O. Johansson et alii: London Resolution. *Pathophysiology*, Volume 16, Issues 2-3, August 2009, Pages 247-248.
9. Mail Online News. 28th July 2008.
10. EFE, 24 de junio 2008, El Periódico de Aragón 25/06/ 2008. Info7 2008 TV Azteca Noreste.
11. Deia. Bilbao. 22 de julio de 2008.
12. 20 minutos. Valladolid. 11.07.2008. Diario de León. León. 27 de Julio de 2008. Auto del Juzgado Contencioso/Admtvo. N.2 de León. N.º de Identificación Único: 24089 3 000968/2008. León 31 de julio de 2008.
13. Resolución del Parlamento Europeo de 2 de abril de 2009, sobre las consideraciones sanitarias relacionadas con los campos electromagnéticos (2008/2111INI). Bruselas, 2 de abril de 2009. www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?type=TA&reference=P6-TA-2009-0216&language=ES
14. AFP. Herouville-Saint-Clair. 17/04/ 2009.

Pedro Belmonte Espejo



# Hain urruti, hain gertukoa



Iazko udaberrian joan ginen lehen aldiz Txilera, eta aurten berriro itzultzeko aukera izan dugu. Eilastasunaren laguntzarekin han burutzen ari den proiektuaren nondik-norakoak eta azalduko dugun ibilera kokatzeko, Txileroi eta maputxeei buruzko ohar txo batzuk egin nahi genituzke.



## Txile

Gutako edonori Txilez galdetuz gero, burura datorkigu Hego Amerikako mapan Andeen eta Ozeano Barearen artean dagoen halako irudi luzanga bat 4.200 kilometro luze. Badakigu garai batean, Espainiako koroaren zati izan zela, eta XIX. mendearen hasieran, 1810. urtean, *bain zuzen ere, independentzia lortu zuela. Adin batetik aurrerakoek nostalgiaz gogoratuko dugu 1970ean hasita Unidad Popularraren gobernuak, Salvador Allende buru zuela, piztutako itxaropena; eta min ezkarriko ditugu gogora 1973. urtean, Pinochet buru zela, itxaropen horiek guztiak zapuztu zituen militarren kolpea eta ondorengo errepresio latza.*

Denok dakigu, bestalde, 1990ean diktadura bertan behera geratu zela, eta gaur egun Michelle Bachelet, Partidu Sozialistakoa, dela Txileko errepublikako presidentea. Bestalde, hemengo komunikabideek euskal enpresariak han egiten dituzten negozio zoragarrien berri ematen digute aldioro-aldioro. Hortaz, bertara joan ezean edo bestelako kezkarik ez badugu, eta komunikabideek esaten dutenari baino ez badiogu erreparatzen, Hego Amerikako estaturik “demokratikoena, egonkorrena eta modernoena” dela pentsa genezake.

Baina, azal goxo eta dirdiratsu hori pixka bat marrazkatzen badugu, berehala konturatuko gara mamia askoz itsusiagoa eta mingotsagoa dela.



Amerikako jatorrizko gainerako biztanleek bezala, Txileko indigenek mendeetako menderakuntza jasan behar izan zuten, eta estatuaren sorrerak arazoak konpondu ordez areagotu egin zituen, orduan hasi baitziren lur-desjabetze prozesurik latzenak. XX. mendearen hasieran, kanpoko enpresen esku utzi zituzten ordura arte kolonoek armadaren laguntzaz kendu ez zizkieten lurrak. Unidad Popularraren garaian, egoera hori konpontzeko zenbait urrats eman baziren ere, diktadura iristearekin batera, egoera are gehiago laztu zen, eta enpresa multinazionalak pagotxa paregabea aurkitu zuten, lurrak hutsaren truke jasotzeko aukera izan baitzuten.

Diktadurak utzitako oinordetza eremu ezin emankorragoa gertatu da neoliberalismoa garatzeko eta bere fruiturik mikatzenak erakusteko.



Txile osoa pribatizatuta dago: lurrak, lur azpikoak, ibaietakoak eta itsasoko urak; zer esanik ez, zer-bitzu publikoak: osasuna, irakaskuntza, garraioa, autobideak... Egoera sozio-ekonomiko horren ondorioz, Txilen gizarte-aldeak oso nabarmenak dira, eta asko eta asko dira lan erregularrik ez dutenak eta bizimodua nola edo hala atera behar dutenak. Sistema politikoa diktaduraren oinordetza da, eta partidu txikiei ez die inolako aukerarik ematen ordezkariarik izateko, eta are gutxiago indigenei. Gainera, diktadura garaiko lege asko, Terrorismoaren Kontrako Legea, kasu, indarrean daude oraindik. Horren guztiaren ondorioz, bazterkeria eta bidegabeko legedia modurik latzenezan pairatzen dituztenak bertako indigenak dira, dudarik gabe.

### Maputxeak

Txileko biztanleen %5 indigenak dira eta zenbait herrik bizirik diraute: aimarak, Rapa-Nuiak, diagitak, kitxuak, kollak, iamanak, alkalufeak, likanantaiak eta maputxeak. Horien artean maputxeena da talderik kopurutsuena eta antolatuenena. *Maputxe* hitzak haien hizkuntzan "lurraren jendea" esan nahi du. Txilen 600.000<sup>1</sup> baino gehiago dira, eta Argentinan beste 200.000 inguru<sup>2</sup> bizi dira. Mapu, arbasoen lurraldea, Atlantikotik Ozeano Barea iristen bazen ere, gaur egun ez dute lurralderik eta Txileko VIII., IX. eta X. eskualdeetan bizi dira. Hala ere, erdiak baino gehiago hirietan bizi dira eta asko eta asko eskualde horietatik kanpo. Haien hizkuntza *mapudunguna* lurraren hitza da eta 100.000 lagun inguruk hitz egiten dute oraindik. Hala ere, mapudungunaren egoera oso larria da, hitz egiteko gai direnen arteko gehienak adinekoak baitira; eta hogeitertetik beherakoen artean, oso leku apartatuetan bizi direnek bakarrik hitz egiten baitute.

### Kezna nagusiak

Iaz Txilera joan ginenean, Eilastasunaren laguntzaz aurrera egiten duen eskolatxo eta mapu-

txeen errealitatea bertatik bertara ezagutzeko asmoa genuen. Ikasturtea hasi berria zen, proiektuan lanean hasi gabe zeuden oraindik, eta eskolaren egoitza baino ezin izan genuen ikusi, baina maputxeek bizi duten errealitatera hurbiltzeko aukera izan genuen. *Peñi*, Luis Llanquilef, anaia maputxea, gidari genuela, Tirua, Cañete eta Arauko bitartean lagun asko ezagutu genituen eta VIII. eta IX. eskualdeetako zenbait komunitate, talde politiko eta erakunderekin egoteko parada izan genuen. Haiekin egindako bileretan beti errepikatzen ziren antzeko kezak:

1. Jabegoa baieztatzen duten ziurtagiriak aurkezten badituzte ere, zailtasun itzelak dituzte arbasoen lurrak berreskuratzeko.
2. Era guztietako enpresek, asko eta asko multinazionalak: zurgintzakoak, papergintzakoak, meatzaritzakoak, arrantzakoak... egiten duten ustiaketa basatiak ingurumena lazki hondatzen du eta kalteek denboran iraungo dute.
3. Giza Eskubideak ez dira errespetatzen, lurraldeak militartuta daude eta maputxeei diktadura garaiko legedia ezartzen zaie, Terrorismoaren Kontrako Legea, besteak beste. Ondorioz, bertan behera geratzen dira zuzentasunerako eta bidezko prozesurako berme guztiak.
4. Txileko estatuak ez du onartzen maputxeak herri bat direla, eta 2008an Herri Indigenen Nazioarteko Hitzarmena sinatu bazuen ere; urte bete geroago ez du funtsezko urratsik eman hori betetzeko.
5. Ezinbestekoa dute Maputxeen arteko batasuna lortzea, banaketaren ondorioz ez baitute legokiekeen ordezkari politiko lortzen.
6. Hirietan bizi diren maputxe gazteak kontzientziatu behar dituzte, beren herriaren borrokarekin bat egin dezaten.
7. Haien hizkuntzaren eta kulturaren biziraupena bermatzeko baliabideak eta araudia behar dituzte.



### Hizkuntza eta kultura berreskuratzeko

Bidaiaren esperientziak erabat erasanda itzuli ginen gure ohiko zereginetara, baina handik bi hilabetera Luis Llanquilef gure artean zen. Frantzia hainbat bisita burutu ondoren, ohiko hitzalditxo eman zuen Gasteizen, eta Umandi Ikastola eta Angel Ganivet lehen hezkuntzako ikastetxeetan izan zen, ikasleekin maputxeei buruz aritzeko. Gainera, gure ikastetxeak nolakoak diren eta bertan nolako lana egiten den ikusteko aukera izan zuen, eta maputheen gaia nola tratatzen dugun ikusi ahal izan zuen. Bazuen gure hezkuntza sisteman eta ikastolen berri, eta ikusitakoak akuilatuta, nonbait, aurrez berriz ere joateko gonbidapena luzatzea bururatu zitzaion. Asmoa Arauko probintziako irakasle eta komunitateetako arduradunekin biltzea zen hizkuntzaren eta kulturaren berreskuratzeko hitz egiteko, eta helburu hori betetzeko zenbait lan prestatu zizkiguten.

Hasteko, goiz osoko bi bilera luze izan genituen Cañeten identitateaz, hezkuntzaz eta hizkuntzaz hitz egiteko. Bileretan hogeita bost lagun inguru

izan ziren, gehienak komunitateetako arduradunak edo ordezkariak, baina hezkuntzako jende gutxi zegoen eta gainera, bakanak ziren mapudungun hiztunak.

Han geundela, goiz batean, Cayucupil izeneko komunitateko peñi eta lamgenekin<sup>3</sup> egon ginen. Gaztelania hutsezko hiztunak dira, baina haien hizkuntza berreskuratzeko unea iritsi dela adierazi ziguten.

Iaz ezagutu genuen Quintrileo komunitatea bisitatzeko aukera ere izan genuen bitartean. Komunitateko kide gehienak emakumezkoak dira, baita burua bera ere. Iaz lur-jabearekin eta karabineroekin borroka latzean ezagutu bagenituen ere, aurrez lurraren jabetza onartu diete, eta, han ginela, komunitatearen egoitza eraikitzen ari ziren.

Cañeten egin beharrekoak amaituta, Araucora joan ginen iaz ezagutu genituen lagunekin elkartzera. Komunitatea oso pozik zegoen Colo-Colo kazikearen muinoa, maputxeentzat oso leku esanguratsua dena, Kultur Ondare izendatu berri baitzuten. Komunitatearen ordezkariak udalaren



osoko bilkurara lagundu genituen haien hizkuntza eta kultura berreskuratzeko nolako ekintzak burutu nahi zituzten azaltzera. Bitxia izan zen “de facto” udaleko nagusia zen emakumezkoa Bizkaiko euskaldunen ondorengoa zela jakitea.

Concepción hirian hiru bilera izan genituen hiritartutako maputxeekin. Herrietako maputxeek azaldutako gai berberak mahaigaineratu zituzten, antzeko kezak zituzten eta lanean hasteko premia bera erakutsi ziguten.

### Hizkuntza eta kultura tailerrak eskolan

Cañeten geundela, arratsalde bat hartu genuen Llonkaoko eskola bisitatzeko eta 7. eta 8. mailetako ikasleekin eskola-emankizuna antolatzeke aukera izan genuen; ikasle horiek baitira, hain zuzen ere, aurreko ikasturtean Hizkuntza eta Kultura Maputxearen tailerretan parte hartu zutenak. Mentxu andereño zela, gauzatu genuen emankizun horretan harridura izan zen nagusi.

Harridura, neska-mutilena, haien eta gure kulturaren arteko berdintasunez eta aldeez konturatzeari: han negua, hemen uda -edo alderantziz-; mapudunguna eta euskara; handik ekarritako patata hemen ere nagusi...

Txundidura, gurea, haiekin talde txikitik hizketan hasi ginenean. Gela berean, hamabi eta hamazazpi urte bitarteko neska-mutilak zeuden. Elkarrekin zeuden soldaduskarako deituta zegoen gazte bi boteduna eta oraindik erabateko ume itxura zuten neska-mutikoak. Batera zeuden ere eskolan primeran moldatzen zena, mediku izateko ametsa zuena eta ozta-ozta testua deszifratzeko gai zena. Eta jakin genuen hori ez dela azkar-ergel kontu bat, ez horixe. Behin adin batera iritsita, ikasle horietako zenbaitzuek, piper egin behar izaten dute hiru-lau astez, etxeko sailetan lan egiteko. Txile moderno, ia europar horretan ikusi dugu geure begiez.

Harridura, hango irakaslearena, halako “troupe” xelebrea gelatik nola mugitzen zen ikustean, kanpoko sei lagun sartu baikin.

Gaur egun Llonkaoko eskolan egiten diren tailer horien aurrekariak 2004. urtean hasi ziren. Urte hartan neska maputxe bat, Carolina Carinao, izan zen Gasteizen zenbait ikastaro eta prestakuntza lana gauzatzeko. Orduan ikusi genuen nolako egoeran zeuden mapudunguna eta maputxeen kultura, eta Carolinarekin batera proiektu txiki bat landu genuen: asteburuko eskolatxo bat antolatzea ume maputxeak haien hizkuntza eta kulturara hurbiltzeko. Eilastasunak bere egin zuen egitasmoa, eta 2005. ikasturtean Huape sektorean martxan jarri zen eta hiru urtetan zehar erabiltzeko utzitako etxetxo moduko batean funtzionatu zuen. Eskolaren ardura nagusia bi laguntzailek zuten: Carolinak eta bere lehengusina batek, eta jolasak eta kultura-jarduerak antolatzen zituzten. Horrez gain, Kinché<sup>4</sup> bat joaten zen ordu batez edo, hizkuntza irakastera. Eta asistentzia ona bermatzeko bazkaria ematen zitzaizkien ikasleei.

2008. urtean Luis Llanquilefek, gurekin harremanak dituen anaia maputxeak, proiektua udal eskola<sup>5</sup> batean txertatzeko proposamena egin zigun. Ondo iritzi genion, eta zuzendaritzaren, guraso elkartearen eta udalaren oniritzia jasota, bi ikasturteko ibilbidea du jada.

Proiektua oso gauza txikia da, kontuan hartzen badugu 6. eta 7. mailetako ikasleek astean arratsalde bat besterik ez diotela eskaintzen eta oinarrizko kontzeptu batzuk baino ez dituztela lantzen. Oso gauza txikia da, jakinda ikasitakoaren erdia ahaztuta izango dutela eskola utzi orduko. Baina, kontuan hartzen badugu mapudunguna ez dela ia inon irakasten, oso gutxi direla maputxeen hizkuntza eta kultura irakasteko gai diren irakasleak, eta oso leku gutxitan lantzen dela ezer modu sistematiko samarrean, ez da hain gutxi. Eta, hala ere, are txikiagoa



ematen du, hemen garatu ditugun aukerekin eta baliabideekin alderatzen badugu.

Baina, kontu txiki horrek, haiekin izandako harremani esker, Gasteizko hiru eskolatan zenbait saio egiteko aitzakia eta aukera eskaini digu, ikasleekin haien kultura ezagutzeko eta gurearekin alderatzeko: han uda, hemen negua (edo alderantziz), euskara eta mapudunguna, handik ekarritako patata hemen ere nagusi...

Mentxu eta Joseba

“Son cosas chiquitas.

No acaban con la pobreza  
no nos sacan del subdesarrollo,  
no socializan los medios de producción  
y de cambio, no expropián las cuevas de Alí Babá.  
Pero quizá desencadenen la alegría de hacer,  
y la traduzcan en actos.

Y al fin y al cabo, actuar sobre la realidad  
y cambiarla aunque sea un poquito,  
Es la única manera de probar  
que la realidad es transformable”

Eduardo Galeano

**STEE-EILAS**

